

Brodecken txostena



Brodecken txostena

Jatorrizko izenburua: *Le rapport de Brodeck*

Egilea: Philippe Claudel

Itzultzailea: Itziar Diez de Ultzurrun

Argitaratze urtea: 2011

Argitaletxea: Igela

MIKEL GARMENDIA

Badira hiruzpalau egun *Brodecken txostena* irakurri nuela eta haren oihartzunak dabilzkit oraindik ere buruan. Claudelek Alemaniako mendialdeko herrixka batean kokatuko digu kontakizuna joan den mendeko gerra handien Europan. Herrixkara arrotz bat iristen da, *Andererra* (bestea, alemanez) eta herriko gizonek hil egiten dute. Herriko eskolatu bakarra Brodeck izaki, berari ematen diote hilketa horren kontakizuna eta zuriketa egitea txosten baten bitartez. Txostenean hilketa horren berri ez ezik, Brodecken beraren iraganaren eta orainaren berri ere ematen du eta ez nolana gainera: “Ez naiz abokatua. Ez naiz polizia. Ez naiz kontalaria. Kontakizun hau da –ez dio axola inoiz irakurtzen denetz– horren frogarik behinena, aurrera-atzera bainabil etengabe, denboraren hariaren gainetik jauzika hesi baten gainetik bezala, inguru-minguruetan galdurik eta funtsezkoena isilduz, nahita ez bada ere.”

Izan ere, nazien esparru batean izan baitzen Brodeck, non gizakiaren mailarik makur eta behekoena ezagutu baitzuen: “Nirekin batera giltzapeturiko gehientsuenek uko egin zioten hala jateari. Hilik daude. Nik zakurren moduan jaten nuen, lau hankan eta ahoarekin. Eta bizirik nago.”

Beldurra eta bakardadea ageri dira bai *Andererraren* hilketaren kontakizunean, bai Brodecken bizitzarenean ere, zer izugarrikerietarako gai den gizakia (eta areago gizakiek osatutako masa) beldurraren eraginez eta zeinen latza den bakardadea. Ez nuke esango, hala ere, kontakizun ezkorra denik. Gogorra bai, baina ez ezkorra, gogorkeriaren eta ankerkeriaren aurrean, maitasun-keinuak (*Andererraren* irribarre etengabea eta izaera baketsua) eta ahantura (ez erabatekoa) jarriko baitizkigu. Ahantzi eta berriro hasi, Brodeckek berak ere halaxe egingo baitu. Erabateko ahantura bezain okerra delakoan etengabe oroitzea.

Brodeckek berak dioenez kontakizunean etengabe atzera-aurrera ibiltze hori ez da, ordea, oztopo bi istorioak elkargurutzaturik ondo jarraitzeko. Prosa jariotsua darabil horretarako Claudelek, jaso bezain argia, deskribapen zorrotzak erritmo bizi batekin konbinatzen dituena. Tatxarrik gabea da, alde horretatik, Itziar Diaz de Ultzurrunen itzulpena, bertsio zehatz eta argia eman baitigu, euskara jasoan, ekialdeko ukituez zipriztindua.